



## **ZINEMA ERAIKITZEN**

### **CASA DE AMÉRICA SARIA**

#### **Zinema latinoamerikarraren lostprodukziorako laguntza 59. Donostia Zinemaldia, 2011**

Zinema Latinoamerikarraren Postprodukzioa Laguntzeko Casa de América Saria 10.000 eurokoa (gordinak) da.

Dirutan emandako sari guztiek atxikipen fiskala izango dute. Atxikipena indarrean dagoen legediaren eta herrialde bakoitzarekin sinatutako nazioarteko hitzarmenen arabera ezarriko da.

#### **Casa de America Sariaren Oinarriak**

Zinema Latinoamerikarraren Postprodukzioa Laguntzeko CASA DE AMÉRICA sariaren irabazleak honako hau jaso behar du derrigor kredituen tituluetan, Casa de Américaren logoarekin batera:

#### **Zinema Eraikitzen Saria- CASA DE AMÉRICA Zinema latinoamerikarraren postprodukziorako laguntza 59. Donostia Zinemaldia, 2011**

CASA DE AMÉRICAK, Iberia zinema aretoan (emanaldietarako bere ohiko aretoa), film irabazlearen emanaldi berezi bat egiteko eskubidea izango du; emanaldi hori ekitaldi kultural batean eskainiko da. Baldintza hau derrigor bete beharko da, filma Espainian estreinatuko den edo ez kontuan hartu gabe. Emanaldiaren data Casa de Américak eta filmaren zuzendariak eta ekoizleak adostu eta hitzartuko dute. Bestalde, Casa de Américak ulertzen du emanaldi eskubideak erosten dituen Espainiako edozein banatzaile eta/edo proiektatzailerekin sinatzen den kontratu orok jasoko duela baldintza hau, interes gatazkak saihesteko.

CASA DE AMÉRICAK, bestalde, 10.000 euro (gordinak) eman beharko dizkio saria irabazten duen filmaren zuzendariari, postprodukzio lanak egiteko. Filmaren zuzendariak bakarrik jaso ahal izango du sari hori, ez beste inork.

**Casa de América  
Ateneo Americano  
Zinema Eraikitzen 2011**